

Balioa

Gure koadrilan egun bat aspertuta geundela, ezer egiteko ez geneukala, negozio baten bila joateko ideia izan genuen. Gazteentzako zerbitzuak eskaintzea erabaki genuen. Zerbitzu horiek haien olgetarako da. Gaur egun dagoen arazo nagusia da, nerabeak ez dutela ekintza nahikorik asteburuan egiteko. Gainera, ez da bidezkoa zuk gustuko duzun zerbait ez egitea zure koadrilako inork ere ez duelako nahi egin. Horretarako dago batez ere zerbitzu hau, hainbat ekintza praktikatzeko edonorekin. Horrek eragiten duena da: alde batetik, jende berria ezagutzea; eta beste aldetik, edozein ekintza praktikatzea eta hortaz aparte aurretik praktikatutako ekintzetan hobetzea.

Geure lehiakideez desberdinduko gaituen ezaugarri nagusiak hauek dira: Nobedadea: egun horretan konturatu ginenez, ez zegoen zerbitzu horren aitzindaririk, beraz, aurrez existitzen ez den behar bat asetuko dugu. Hortaz aparte, pertsonalizazioa izango dugu kontuan; hots, bezero konkretuen beharretara egokitzen da. Gaur egun, badaude kultur etxeak non futbolinera eta ping pong-era aritu dezakezun. Hala ere, kultur etxe horietan ez dute irteerak antolatzen eta hori da batez ere gure proiektuaren mamia. Gure proiektua udako koloniek konpara daitezke baina gure abantaila da kolonia horiek urte osoan direla eta ez bakarrik udan.

Gure proiektuaren faktore nabarmenenak honako hauek dira: prezioari dagokien bezeroek ordaindu beharko izango duten kuota, nahiko merkea izango da; zeren eta udalen laguntza izango dugu irteerak antolatzerakoan, lokala alokatzerakoan... Segurtasuna ere izango da beste faktore nabarmen bat. Honekin esan nahi dudana da, edozein aktibitate edo ekintza egiterakoan, profesional baten edo batzuen arduratuko dira gure segurtasunaz (Adb: mendira igotzerakoan...).